BEASAINdik

Beasaingo udal bihilabetekaria | *Revista municipal bimestral de Beasain*

2020
otsaila *febrero*
37

Enplegu aukera berriak sortzea lehentasun

La creación de empleo como prioridad

Enpleguaren sustapena lehentasun

Aitor Aldasoro Iturbe | Beasaingo alkatea

Ekonomiaren sustapenak ongizatea dakar eta enpleguak pertsona burujabetzen du. Pertsonak izanik, beraz, gure lanaren ardatz, abiapuntu eta jomuga, ezinbestekotzat jotzen dugu ekonomia eta enplegua sustatzeko neurri, proiektu eta egitasmoak lantzen jarraitzea eta bereziki langabezian dauden beasaindarrei lan aukera berriak eskaintzea, urtetik urtera, langabezia tasak eta langabetuen kopuruak behera egiten jarrai dezan Beasainen, baita eskualde mailan ere.

Hori lortze aldera Udalak eragile aktibo izan behar du eta hain zuzen horregatik irmoki heldu genion joan den legealdian tokiko ekonomia eta enpleguaren sustapenari. Horretarako, hainbat egitasmo abiarazi genituen, esate baterako, enplegua sustatzeko Udalaren eta Ikolan Lanaldi enpresaren arteko elkarlana edo Goieki Garapen Agentziaren eskutik enpresa txikiak indartzeko lerroak. Horrez gain, Udalak Goierri Eskolako formazio ikastaroen eta inguruko enpresetako lan praktiken bitartez joan den legealditik hona urtero antolatzen dituen ikastaroek parte-hartzaileen %85 inguruko laneratzea bideratzen dute.

Era berean, ezin aldean utzi, helburu berarekin Udalak martxan jarritako Anezka inkubategia, Coworking-erako espazioa, Arangoitiko plaza berrien aktibatzearekin sortutako langile berrien kontratazioa edo helburu, izaera zein erabilera soziala duten baratzeak.

Datozen urteotan ere, gure helburua da aipatu guztiei jarraipena eman eta proiektu berriak ere martxan jartzea, horien artean, ekintzaileentzako laguntza lerroak, langabezian dauden pertsonei aukera berriak eskaintzeko profil desberdinetara egokitutako formazio saioak eta praktikak, Lanbide Heziketa enpresen behar berrietara egokitu, zoru industriala zerbitzu eta enpresa berriei lekua egin eta enplegu sorrera sustatzeko prestatu…

La promoción del empleo seguirá siendo nuestra prioridad

En la actual sociedad, la economía y el bienestar de las personas van unidas de la mano. Asimismo, el empleo dignifica a la persona y siendo las personas nuestro principal eje de acción, durante esta nueva legislatura seguiremos priorizando la promoción económica y de empleo, dando continuidad al camino emprendido hace ya 4 años y poniendo en marcha nuevas iniciativas con el firme propósito de ofrecer nuevas oportunidades de empleo a las personas desempleadas, de forma que la tasa de desempleo y el número de personas sin trabajo siga disminuyendo tanto en nuestro municipio como en la comarca.

Beasaingo baratze publikoak, helburu sozial eta okupazionala betetzeko

Auto-hornikuntzarako elikadura osasuntsua bultzatzeaz gain, giza talde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremana bultzatu eta langintzan aritzeko aukera ematen du. Egun, 42 baratzetatik 8 daude libre.

Baratze bat eskuratzeko:
https://www.beasain.eus/baratzak

Beasainen enplegu aukera berriak sortzen

Lanak pertsona duintzen du eta ongizatearen berme nagusia da. Hori horrela izanik, Beasaingo udal gobernuak lehentasunezkotzat jo du beti tokiko ekonomia eta enpleguaren sustapena, enplegua sortu eta herriko langabetuei aukera berriak eskaintzeko.

Abiapuntu eta helburu horri helduta, 2015ean hainbat egitasmo eta programa jarri zituen martxan herriko garapen ekonomikoa suspertu eta langabeziari aurre egiteko eta, gaur egun, noski, guztiek dute jarraipena, datozen 4 urteotan ere, gobernu taldearen ardatz eta helburu nagusietako bat delako tokiko jarduera ekonomikoa indartzen eta enplegu aukera berriak sortzen jarraitzea.

Langabeziaren beheranzko joera

Udala ekonomia eta enpleguaren esparruan egiten ari den lanaren adierazle nagusiak, ordea, datuak dira eta Beasainen kasuan, langabeziak azken lau urteotan izan duen jaitsiera nabarmena da.

Gauzak horrela, etengabeko lanaren fruitu gisa, 2015az geroztik, Beasaingo langabezia tasa %1.8 jaitsi da eta gaur egun %7.9an kokatzen da, Gipuzkoako %8.8ko eta EAEko %10.7ko tasaren azpitik.

Lanbiden erregistratutako datuei erreparatuz, langabezian dauden pertsonen kopuruak jaisten jarraitzen du urtez urte. Azken lau urteotako datuen arabera, 2015ean 698 langabetu zeuden herrian, 2016an 618, 2017an 561, 2018an 542 eta itxi berri den urtean, 526. Azken 4 urteotan beraz, guztira 169 langabetu gutxiago daude. Profilari erreparatuz, aldiz, orokorrean, gizonezko baino emakume gehiago daude langabezian.



Lan aukera berriak sortzen jarraitzea helburu

Edozein kasutan, badira oraindik langabezian dauden herritarrak, 45 urtetik gorakoak, ikasketarik gabeko eta gehien bat emakumezkoak, eta guztiei aukera berriak eskaintze aldera, langabetuen profilak kontuan hartuta lanean jarraitzen du udal gobernuak Beasaingo langabeziari aurre egiteko eta noski, beasaindar ororen ongizatea bermatzeko.



El descenso del paro en Beasain sigue siendo una realidad y es que, atendiendo a los últimos datos recogidos por Lanbide, desde el 2015 al 2019, hay un total de 169 personas menos desempleadas. La tasa de desempleo, por tanto, ha descendido un 1.8% desde el inicio de la anterior legislatura y a día de hoy fija su valor en un 7.9%, muy por debajo del 8.8% del valor territorial y del 10.7% del autonómico. Así pues, fomentar la economía local y crear nuevas oportunidades de empleo seguirá siendo uno de los principales ejes de trabajo del equipo de gobierno, para lo cual dará continuidad a las iniciativas y los programas emprendidos durante la anterior legislatura e impulsará nuevos proyectos.

Apirilean hasiko da formazio ikastaroa langabetuentzat

Formazioa lan merkaturatzerako giltzarri nagusietako bat izanik, Udalak ikastaro desberdinak antolatzen ditu urtero Goierri Eskolaren bitartez. Oraingoan, apirilean, soldadura ikastaro berri bati ekingo zaio, Ordizia eta Beasaingo langabetuei zuzenduta. Ikastaroa azaroa arte luzatuko da eta horren bitartez, parte-hartzaileek 2. Mailako Ziurtagiri profesionala eskuratu ahal izango dute. Izen-ematea dagoeneko zabalik dago apirilaren 1a bitartean eta bete beharreko baldintzen nondik-norakoak ikusgai daude www.lanbide.euskadi.net webgunean. Informazio gehiago jasotzeko edota harremanetarako: **943 88 00 62 | aajuria@goierrieskola.eus**

Beasaingo azoka berezia: bertakoari indarra emanez

Otsailaren 4an Beasaingo azoka bereziak 3 urte beteko ditu. Urtarriletik abendura bitarte, hileko lehen larunbatetan Beasaingo plaza bertako eta garaian garaiko produktuez betetzen da, bertako baserritarrek ekoiztutako kalitatezko produktuak beasaindarren eskura jarrita.

Azoka, bertako produktuak, gureak, sustatzeko eta ordurarte zegoen azoka indarberritzeko helburuz sortu zen. Izan ere, 2017a bitarte, baserritarrek astearte zein ostiraletan saltzen zituzten beren produktuak herrian, baina salmenta hori beherantz zihoala ohartuta, zerbait berriaren premia antzeman zuen Udalak eta helburu horrekin jaio zen hileroko lehen larunbateko azoka berezia. Formula berri honek, garaiko produktuak ikusi, erosi eta dastatzeko aukera eskainita, herritar gehiago, bereziki gazteak, erakarri ditu hilero herriko plazara. Eta ez hori bakarrik! Tailer, dastaketa edota sukaldaritza saioak ere antolatzen dira herritarren gozamenerako. Urtarrileko azokan, makramearen inguruko tailerra izan genuen.

Azoka bereziak, beraz, helburu bikoitza betetzen du: eskualdeko baserritarren lana, zein tokian tokiko produktuak, balioan jartzea eta horien kontsumoa babestea eta sustatzea batetik eta beasaindarrei bertako zein garaiko produktuen kontsumoak dakartzan onurak eskaintzea, bestetik.

Gauzak horrela, egitasmo horren ibilbidea eta herritarren artean izandako harrera ona ikusirik, datozen urteei begira, udal gobernua azoka berezia hilean bi larunbatetan egiteko aukera aztertzen ari da.

Este próximo 4 de febrero se cumplen 3 años desde que se puso en marcha la feria especial de Beasain, que desde entonces se celebra el primer sábado de cada mes, además de la habitual feria matinal de los martes y los viernes. Dicha feria cumple un doble objetivo: poner en valor los productos locales, así como el trabajo de las y los baserritarras de la comarca y ofrecer a la ciudadanía la oportunidad de gozar de los beneficios del consumo de dichos productos.

En vista de la buena acogida que ha tenido esta iniciativa, de cara a los próximos años, el equipo de gobierno se plantea ampliar dicha feria a dos sábados al mes.

Azoka berezian, tokian tokiko eta garaian garaiko produktuez haratago, herritarrek tailer edota saio ezberdinez gozatzeko aukera izaten dute. Hona hemen 2020rako aurreikusitakoak:

OTSAILAK 1	Artoaren nondik norakoak eta taloa egiten ikasteko tailerra Kutxa Ekogunearen eskutik
MARTXOAK 7	Pintxo tailerra
APIRILAK 4	Barazkiak kontserbatzeko tailerra
MAIATZAK 2	Pasta egiteko tailerra | Astigarretako gozoak
EKAINAK 6	Ardo dastaketa
UZTAILAK 4	Umeentzako eskulan tailerra
ABUZTUAN	Azokarik ez
IRAILAK 5	Saskitxoak egiteko tailerra
URRIAK 3	Pizzak egiteko tailerra
AZAROAK 7	Odolki lehiaketa eta dastaketa
ABENDUAK 5	Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra

Abian da 2020ko lehen seihileko Igartza Musika Programa

Datozen 6 hilabeteetan, ohikoa den bezala, musika protagonista izango da Beasainen Igartza Musika programa berriari esker. Dagoeneko 4 urte pasa dira herriko kultur eta musika jarduerak indartzeko helburuarekin Udalak programa hau lehen aldiz abiarazi zuenetik, horretarako Igartza monumentu multzoa musikarekin lotuaz. Hona hemen ekaina bitartean antolatutako egitaraua.

Lokal hutsak berrerabiltzeko dirulaguntzak

Beasaingo merkataritza biziberritu eta indartze aldera, Udalak hutsik dauden lokalak berreskuratzeko dirulaguntza deialdia zabaldu du, Jose Migel Iturriotz kalean daudenei lehentasuna emanez. Udalak, beraz, itxita dauden lokalak erosi zein alokatzeko edota martxan dagoen negozio bat eskualdatzeko laguntzak eskainiko ditu.

Hutsik dagoen lokala alokatzeko alokairu kostuaren %50 ordaintzeko dirulaguntza eskainiko du lehen urtean (gehienez 300€). Bigarren eta hirugarren urteetan, aldiz, laguntza hori %40koa izango da. Lokala erosteko edota martxan dagoen negozio bat eskualdatzeko dirulaguntza berdina izango da, 2.000€ hiru urtetarako.

Hutsik dauden lokalak identifikatu eta apaintzeko biniloak

Jose Migel Iturriotz kalea lokal huts gehien dituen eremua izanik, Udalak binilo apaingarriak jarriko ditu horietan zein Kale Nagusiko beste hainbat lokal hutsetan, guztiak identifikatu, apaindu eta ikusarazteko, modu horretara haien berreskuraketa errazteko.

Ayudas para la reapertura de locales vacíos

Con el firme propósito de revitalizar y fomentar el comercio local, el Ayuntamiento de Beasain ha abierto una convocatoria de ayudas para la reapertura de locales vacíos, dando prioridad a los situados en la calle Jose Miguel Iturriotz con el objeto de revitalizar la actividad comercial de la zona. Asimismo, se colocarán vinilos en dichos locales, así como en otros de Kale Nagusia, con el fin de identificarlos y redecorarlos de forma que sean más visibles y fomentar de este modo su reutilización.

BEASAIN HERRI BIZIA

3X3 saskibaloi lehiaketa

Garin auzoko festak

Arimaren margolariak margo erakusketa

Erauskin plaza, erabilera anitzeko gune bilakatuta

Udalak Erauskin plaza oinezkoentzako egin zuenetik, aipatu gunea erabilera anitzeko espazio bilakatu da, herritarren gozamenerako topagune berri bat, alegia.

Abenduan zabaldu zenetik, ia 2.700 erabiltzaile izan ditu komun publiko berriak

Otsailean Beasainen...

Loinazko San Martin eguna

Urrezko Aizkora: gizon eta emakumezkoen aizkolari eta harrijasotzaileen saioak kiroldegian

Aranealde adinekoen elkarteko pertsona helduenei omenaldia

Odolki kofradiaren eguna

Matxinbentako jaiak

Urtarrilaren 31tik otsailaren 5era: mus txapelketa, haur jolasak, bertso-afaria, herri-kirol jaialdia, pilota partiduak, santa eskean, jubilatuentzat hamaiketakoa...

Inauteriak

Otsailak 22: Ostadar dantza taldearen kalejira eta erromeria

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

Gizartearen zahartzea etorkizuneko erronka

Beasaingo Udalak, herrian bizi diren adinekoen bizi kalitatea hobetzeko lanean dihardu. Berriki, adinekoen eta ingurukoen segurtasuna bermatzeko asmoz, ke detektagailuak jarri ditu bakarrik bizi diren adineko pertsonen etxeetan eta, bide batez, pertsona horien beharren inguruko azterketa ere jarri du abian. Bertatik bertara ezagutu nahi izan dugu pertsona horietako baten esperientzia Martina Irizar 86 urteko beasaindarraren esperientzia hain zuzen ere.

Noiztik bizi zara etxe honetan eta noiztik bakarrik?

2011ko urtarrilaren 31n etorri ginen hona bizitzera, beraz, hilabete honetan 9 urte beteko dira. Bakarrik, aldiz, duela urte eta erdi, senarra hil zenetik.

Zein da zure egunerokotasuneko errutina?

Lehenbizi jaiki, dutxatu eta gosaldu. Astearte eta ostegunetan, Mari Ana izeneko emakume bat etortzen da etxeko lanekin laguntzera: garbiketa lana edota ohea egin, arropa zintzilikatu… Nik ezin dut pisurik hartu; erratza pasa, eta horrelakoak egin bai, noski, baina etxeari astindua berak ematen dio. Sukaldean, adibidez, ni neu aritzen naiz, nahiz eta berak ere laguntzen didan.

Arratsaldero paseatzera ateratzen naiz, gehienetan Martin semearekin. Normalean kiroldegiraino joan eta buelta egiten dut eta enkarguren bat badut egiteko, hori ere egin ohi dut. Dena den, erosketa handienak Martinekin egiten ditut, kotxearen laguntzarekin, esan bezala, nik ezin dudalako pisurik hartu. Karroarekin ibiltzen naiz enkarguak egiten, baina lau gauza hartzen ditut, pisurik gabekoak. Bestalde, ostegunero pintxo-potera irtetzen naiz. Guztira 6 lagun elkartzen gara eta pintxo edota ardorik ez badugu hartzen ere, kafetxo batekin hor ibiltzen gara tertulian.

Zein harreman dituzu auzoan?

Harreman onak! Bizilagunak oso jatorrak ditut, gazteagoak ia guztiak, baina harreman ona dut beraiekin. Nik esaten diet, ni naizela eraikin honetako amona, eta orain jaiotzear dagoen bizilagunen umea, eraikineko txikiena.

Familia baduzu? Seme-alabarik? Bilobarik? Bisitak izaten dituzu?

Bi seme ditut eta bi biloba, Martinen aldetik. Madrilen daude biak, zaharrena lanean eta txikiena oraindik ikasten, baina bisitan etortzen dira. Amonarekin akordatzen dira bai. Igandeetan nire ahizpa ere etortzen da bere senarrarekin eta elkarrekin bazkaltzen dugu guztiok. Zumarragara ere joaten gara. Pentsa, nik duela urtebete utzi nion gidatzeari. 16 urterekin hasi nintzen eta aurreko urte arte gidatzen jarraitzen nuen! Pena eman zidan uzteak, medikutara joateko lagungarri zitzaidalako gidabaimena izatea. Baina karneta kadukatzean ez berritzeko erabakia hartu nuen. Orain, ordea, eraman egin behar izaten naute beti.

Zer duzu gustuko egitea? Zeintzuk dira zure afizioak?

Irakurtzea ikaragarri gustatzen zait. Batzuetan liburuak, besteetan aldizkariak. Baina gehienbat egunkaria irakurtzea gustatzen zait. Egunero irakurtzeko ohitura dut eta egunkarietako gehigarriak ere gustura irakurtzen ditut.

Horrez gain, sukaldean aritzea gustatzen zait. Zaletasun handia dut. Sukaldaritzako liburu asko

ditut, eta aurreko etxetik hona etortzean 16-18 bat ekarri eta han beste hainbeste utzi nituen. Egunero sukaldaritza programak ere ikusten ditut, ahal ditudan guztiak. Benetan gustatzen zaidan zerbait da. Erlaxatu eta guzti egiten nau. Jatetxe txiki bat ireki ez izana izango da beti nire pena handiena.

Ke detektagailua izatea lagungarri zaizu? Bestelako laguntzarik jasotzen duzu? Udalak bestelako laguntzarik eman dizu?

Ni oso kontentu nago ke detektagailuarekin. Lagungarri zait eta lasaitasuna ere ematen dit. Deskuidua izan dezaket eta tresna horrek detektatzea abantaila bat da. Egia esan, oso gustura nago horrekin, baita Udaletik hona etorri diren pertsonekin ere.

Duela urte eta erdi bi lagun etortzen ziren, bata 9:00etatik 10:00etara eta bestea 10:00etatik 12:00etara, nire senarrari eta niri laguntzera. Lehenak nire senarra dutxatu eta jazten zuen eta bigarrenak etxeko lanekin laguntzen zigun eta nire senarrari ariketak ere jartzen zizkion.

Zein esango zenuke direla zure beharrik nagusienak?

Ni oso gustura bizi naizela esan dezaket. Nire egunerokotasunean egiten dudanarekin pozik eta gustura nago. Orain agian pereza handiagoa ematen dit Ordiziara edota Donostira joateak, baina horretan ere hasi nahi dut. Lehen ostegunero joaten nintzen hiriburura nire ahizpekin.

Zer eskatuko zenioke Udalari zure egunerokotasunean lagungarri izan dadin?

Beharrezkoa izango banu zerbitzu gehiago jasotzeko aukera izatea, hau da, noizbait gaur egun ditudan beharrak baino gehiago baditut, Udalak eskaintzen didan zerbitzua areagotzea, besterik ez.

El envejecimiento de la población como reto de futuro

El envejecimiento de la población es, a día de hoy, una realidad y por tanto, uno de los principales retos del futuro. Es por ello que el Ayuntamiento de Beasain trabaja para garantizar el bienestar de las personas mayores con iniciativas como Goiz Zaindu, consultorio deportivo, Beasain Lagunkoia, Ondo Ibili, Ondo Izan… El objetivo de todas ellas es promover el envejecimiento activo y saludable y mejorar el bienestar de este colectivo de personas.

No obstante, para ello, el Consistorio también considera fundamental ahondar más y conocer mejor el actual estado y la situación de sus mayores así como sus condiciones de vida y de vivienda para seguir identificando sus principales necesidades y dar respuesta a las mismas.

Con ese mismo fin y el de mejorar la prevención de riesgos, recientemente el Ayuntamiento ha instalado detectores de humo en 159 hogares de personas mayores de 80 años que viven solas. Cabe destacar que quienes han rechazado la instalación del citado aparato ya tienen uno previamente instalado, cuentan con el servicio de teleasistencia o no viven en dicha casa. Asimismo, ha aprovechado la ocasión para realizar un estudio sobre las necesidades de dichas personas.

Ahora, de cara al 2020, hará lo mismo en los hogares de las personas mayores de 80 años que viven en pareja con el fin de garantizar la independencia, el bienestar y la calidad de vida de todas ellas.

2019-2023 LEGEALDIA, HASITAKO IBILBIDEARI JARRAIPENA EMAN ETA ETORKIZUNEKO ERRONKEI AURRE EGIN

Beasaingo Udalak **Legealdi Plana** jarri du martxan datozen 4 urtetarako. Herritarren ongizatea bermatuko duen Zerbitzu Eraginkor eta atsegina eskaintzea da asmoa.

Horretarako, **gertuko administrazio eraginkorra** bideratuko da. Beasaindarren ongizatea helburutzat harturik (ekonomia eta enplegu politika egokiarekin), nortasuna eta izaera egonkortuz eta indartuz.

Jomuga zehaztuta, **antolaketa sendo eta egokia** garatuko da. Proaktiboak izanez, beasaindarren beharrak jaso, geure ikur dugun gertutasunetik lan egingo dugu. Horretara bideratuko da antolakuntza, beharrezko baliabideak ahalbidetuz, bai pertsonalak bai eta materialak ere, e-administrazio arin, erraz eta segurua eskainiz. Eta **komunikazio eraginkor eta ulergarria** ahalbidetuz.

Herritarrok, beasaindarrok, dira funts eta helburu. Hauen beharrak entzun ostean erantzun egoki bat emateko aldiro. **Beasaindarren bizi kalitatea bermatu** nahi da: osasunean eta prebentzioan jarriko da nagusiki begia. Eta herritarren arteko **bizikidetza** sustatzeko ahalegin eta ekimenak garatuko dira: harremanak landuz, egiturak egokituz, eta herritar dinamikak indartuz. Herrian dagoen aniztasun bizia baliatu nahi da **belaunaldien arteko zubiak** zaindu eta sendo eraikitzeko.

Mugikortasuna, irisgarritasuna, bertako ondarea eta ingurunea zaindu eta gara ditzagun.

2023rako herri bizi bat izatea, **herritarren zerbitzura** dagoena. Herri euskalduna, osasuntsua, jasangarria, solidarioa eta guztiona.

Las personas y su bienestar han sido siempre el principal eje de trabajo del equipo de gobierno y las y los beasaindarras, el desarrollo del municipio y la construcción del futuro, las principales prioridades.

Para lograr todo ello, el gobierno municipal ya ha definido la que será su hoja de ruta durante los próximos cuatro años, el plan de gestión de la legislatura 2019-2023. En él ha recogido los principales ejes de actuación para dar continuidad al camino emprendido hace ya cuatro años, así como para hacer frente a los retos del futuro y seguir construyendo un municipio con futuro.

El Plan de gestión de la nueva legislatura recoge, así, 5 ejes estratégicos, cada cual, con objetivos estratégicos propios de los cuales se valdrá el gobierno local para garantizar el bienestar de la ciudadanía, el desarrollo del municipio y el futuro de Beasain y las y los beasaindarras.

Herritarren beharrei, gertutasunetik eta eguneroko lanarekin erantzuten jarraitzeko, 2019-2023 legealdiaren kudeaketa plana landu du udal gobernuak sailetako buruekin. Kudeaketa plan horrek 5 ardatz estrategiko ditu bere oinarrian eta ardatz horien baitan ezarri dira legealdirako gida lerroak izango diren helburu eta ekintza zehatzak.

Jarduera ekonomikoa eta tokiko enplegua

» Enplegua eta jarduera ekonomikoa sustatzea

Herritarren ongizatea eta bizi kalitatea bermatzea

» Zerbitzu inklusiboak bideratu herritarrei babesa eta laguntza emateko
» Herritarren Giza Garapen Integrala sustatzea
» Bizikidetza garatzea herritarren parte-hartzea bultzatuz
» Udal zerbitzuak herritarren beharretara egokitzea

Herri nortasuna

» Herri nortasuna areagotzea
» Garabide elkartearekin lankidetza
» Kirolean euskaraz oinarritik programa
» Aittu euskara elkartearekin lankidetza
» Beasaingo ibilbideak ezagutzera ematea

Jasangarritasunaren baitan ingurune zaindua duen udalerri atsegin, eroso eta irisgarri bat eraikitzea

» Etorkizuneko Beasainen inguruan hausnartzea eta hori lortzeko erabakiak hartzea
» Herria berritzea eta suspertzea
» Mugikortasun jasangarria, arrazoizko denbora eta kostuan
» Ondare naturalaren eta eraikiaren kalitatea hobetzea

Gobernu onaren kudeaketa eredua

» Administrazio eraginkorragoa
» Udalaren jarduna ikusarazi eta herritarrekin komunikazioa indartu

Egin itzazu zure udal tramiteak, modu erosoan, mugikorretik!

¡Realiza tus trámites cómodamente desde tu móvil!

Zein tramite egin ditzaket?
¿Qué trámites puedo hacer?

ERROLDA
PADRÓN

Errolda agiria deskargatu edo historikoa kontsultatu
Descarga del certificado de mpadronamiento y consulta del histórico

TRAFIKO ISUNAK
MULTAS DE TRÁFICO

Zure izenean dauden trafiko isunak kontsultatu
Consulta las multas de tráfico que están a tu nombre

TASAK ETA ZERGAK
TASAS E IMPUESTOS

zure izenean dauden tasa eta zergak kontsultatu
Consulta las tasas e impuestos a tu nombre

ORDAINAGIRIAK
RECIBOS

Ordaindutako ordainagirien ziurtagiriak deskargatu
Descarga los certificados de recibos pagados

NIRE ORDAINKETAK
PASARELA DE PAGOS

Ordainagiriak eta isunak ordaindu
Realiza pagos de recibos y multas

Zer behar dut? *¿Qué necesito?*

Tramiteak egin ahal izateko B@K edo B@kQ identifikazio elektronikoa beharko duzu. 16 urtetik gorakoabazara, eskuratu zurea ondorengo puntuetan.
Para realizar tus trámites es necesario que dispongas de la identificación electrónica B@kQ. Si eres mayor de 16 años, obtén la tuya en los siguientes puntos.

- **iGunea - Beasaingo Udaleko Arreta Zerbitzuan** *Centro de Atención de Beasain*
- **KZgune zentroan** *Centro KZgune*
- **Osasun zentroan** *Centro de salud*

Beasaingo Udala | Loinazko San Martin plaza - 20.200 Beasain | 943 02 80 50 | udala@beasain.eus | www.beasain.eus
© Edizioa: Beasaingo Udala L.G.: SS 403-2016